

**HERRITARREI KONTSULTA EGITEKO PROZESUA
KATALUNIA PLAZA**

BERME-AGIRIA

Donostian, 2006ko azaroaren 27an



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**

AURKIBIDEA

AURREKARIAK

1. AGIRIAREN XEDEA	5
2. PARTE HARTZEKO BIDEAK.....	5
LEHEN ATALA: BOTOA EMATEKO BIDEA	5
1. BOZKETA-PROZESUA	6
2. BOTOEN ZENBAKETA-PROZESUA	10
3. BERME ETA SEGURTASUNERAKO JARRAIBIDEAK	11
BIGARREN ATALA: IRADOKIZUNAK EGITEKO BIDEA	13
1. IRADOKIZUNAK IREKITZEA	13
2. SISTEMATIZATZEA	13
3. EMAITZAK ARGITARA EMATEA	14
4. IRADOKIZUNAK PROIEKTU IRABAZLEAN BARNERATZEA	14
3. JARRAIPENERAKO MAHAIA	14
4. ERANTZUKIZUNAK	14
1. Eranskina: Bozketa-prozesuaren fluxu-diagrama	19
2. Eranskina: Lurralde-eremuko kaleen zerrenda	20
3. Eranskina: Iradokizunen Fitxa	28

AURREKARIAK

Katalunia Plazako lurpeko aparkalekua Donostiako Udalaren eskuetara itzuliko da 2008ko abenduaren 31n. Hainbat arazo tekniko batera agertu direnez gero, egungo egitura hori eraistea komeni da. Aparkaleku berriak 4 edo 5 solairu izango ditu, eta halaber, inguruko kaleen maila berean eraturako plaza bat, Gros auzoko herritarrei egindako kontsultaren bidez jasotako iritziarekin eta premiekin bat etorriz.

Hori dela eta, Aldez Aurreko Azterketak Idazteko 3 talde aukeratzeko ideien lehiaketa bat egitea proposatu da. Ideien lehiaketa hau prozedura ireki arrunt bidez arautuko duten baldintzen orriak abuztuaren 4ko Gobernu Batzarrak onetsi zituen. Hiru horien artetik aukeraturakoak idatziko du Katalunia Plaza berrantolatzeako Aurreproiektua.

Arauzko lehiaketa-izapideak egin ondoren, jasotako zazpi eskaintzen irekiera publikoa egin zen irailaren 20an, eta horretarako eraturako Batzorde Teknikoak horiei buruzko txostena egin zuen; horiek aztertu ondoren, eta dagozkion Baldintza Ekonomiko Administrazioen Orrietako 14. artikuluan deskribaturako esleipen-irizpideak aplikatu eta gero, honako lehiatzaile hauen aurre-aukeraketa proposatu zen:

1. LUR PAISAJISTAK, S.L.,
2. SAMAZUZU ARQUITECTOS, S.L. eta
3. CARLOS ABADIAS BANZO eta AITZPEA LAZKANO ORBEGOZO .

Joan den urriaren 6ko Gobernu Batzarrak onespina eman zion hiru talde hauek aukeratzeari, eta horiek, bi hilabeteko epean, beren "Aldez Aurreko Azterketen Erredakzioa; Katalunia Plaza Berriro Hiritartzeko Aurreproiektua eta geroko Exekuzio Proiektua" proposatu beharko dute. Katalunia Plaza erabat berritzeko proiektua, auzotarren bizikidetzarako eremu publiko handi hori, oso interesgarria da Groseko auzoarentzat, plaza berri hori bere inguruko kaleen maila berean kokatuko duelako, era guztietako zuhaitzak egoera ezin hobean edukitzea ahalbidetuko diolako eta bere inguruko oinezkoentzako kaleekin uztartuko duelako.

Katalunia Plaza auzotarrentzat bizitasun handiko eta erabilera askotako plaza denez gero, Alkateak Auzoak eta Herritarren Partaidetzarako Delegatuari proposatu dio abiaraz dezala herritarren partaidetzarako prozesu bat, eta horren helburu nagusia, plaza horrek izan beharko duen egituraren definizioan Gros auzoko ahalik eta bizilagun gehienek esku har dezatela lortzea da. Horrela, beraz, parte hartzeko prozesu bati ekingo zaio, eta informaziorako eta kontsultarako bide desberdinak kontuan izanik, Groseko auzotarren artean hiru proiektu horien artetik bat aukeratzeko bozketa bat egingo da horren amaieran.

1- AGIRIAREN XEDEA

Agiri honen helburua, hain zuzen ere, Katalunia plazaren inguruan parte hartzeko prozesuan ezarri diren partaidetza-bide desberdinetarako prozedura jasotzea da. Halaber, emaitzen baliotasuna eta fidagarritasuna eta kontsulta-prozesua behar bezala garatuko dela bermatuko duten jarduera-ildoak jasotzen ditu.

Herritarren kontsulta-prozesu horren emaitzak Udal Gobernuak aztertuko ditu, horretarako egindako lehiaketa publikoaren testuinguruan, eta behar bezala baloratuko du kontsultan izandako partaidetza maila eta bozketa-prozesuan hiru proiektu horietako bakoitzak jasotako babesa.

2.- PARTE HARTZEKO BIDEAK

Udal Gobernuak plaza berriro hiritartzeko proiektuaren erredakzio-fase honetarako finkatu duen helburua Gros auzoko eremu garrantzitsu honen inguruan hitz egiten hastea da, eta plaza berriaren diseinuan ahalik eta bizilagun gehienek parte har dezatela bultzatzea. Horretarako, parte hartzeko bi bide finkatu dira: bozketarena eta iradokizunen postontziarena.

LEHEN ATALA: BOZKETA

Bide honen bidez, aurreproiekturako hiru proposamenen artetik bat aukeratu beharko da: kontsulta-prozesuaren azken eguna baino lehen (abendua 17) 16 urte beteak dituzten eta 2006ko urriaren 31 baino lehen Grosen eta Udalak mugatutako eragin-eremuan erroldatuta dauden bizilagunei zuzendua dago. Bide honen bitartez, Grosen bizi eta auzoaren bizikidetzarako eremu garrantzitsu honek dituen premiak eta bete dezakeen eginkizuna ongien ezagutzen dituzten pertsonak bereziki parte hartzea bilatzen da.

Agiri honen xedea, hain zuzen ere, Udaleko Gobernu Batzarrak hautatutako hiru proposamenen artetik Katalunia Plaza berritzeko aurreproiektua aukeratzeko helburuz herritarrei egingo zaien kontsulta-prozesuko bozketaren inguruan finkaturiko prozedura jasotzea da.

1. BOZKETA-PROZESUA

Herritarren kontsultarako errolda

Prozesu honetan parte hartu nahi duten herritarrek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- 16 urte beteak edukitzea kontsulta-prozesuaren azkeneko egunean (abenduak 17), eta
- 2006ko urriaren 31 baino lehen Udalak mugatutako lurralde-eremuaren barruan erroldatuta egotea.

Parte hartu ahal izango duten herritarren izen-zerrenda herritarren kontsulta-erroldaren barruan dator.

Bozketa-prozesu horretan, kontsulta-erroldaren zerrenda bat egongo da botoa emateko aretoan, baina Donostiako Udaleko langile batek bakarrik kontsultatu ahal izango du.

Lurralde-eremua:

Udal Gobernuak kontsultarako lurralde-eremu gisa 2. eranskinean (Kaleen Zerrenda) adierazitako kale eta zenbakiak finkatzen ditu.

Behin-behineko erroldan barneratuta edo kanporatuta dagoen egiaztatzea:

Donostiako udalak aplikazio informatiko bat prestatu du herritarren kontsulta-errolda horretan barneratuta edo kanporatuta dauden egiaztatu dezaten herritarrek, eta bozketa-prozesu horretan parte hartu dezaketen ala ez ikus dezaten.

Udalaren web orrian, www.donostia.org, kokatuta dagoen aplikazio horretan edozein sar daiteke Interneterako sarbidea duen ekipo batetik. Erakusketa-aretoan helburu horretarako bereziki prestatutako ekipo bat dago. Parte hartzeko aukerarik dagoen egiaztatzeko, erabiltzaileak, horretarako adierazitako espazioan, honako datuak idatzi beharko ditu:

- NAN (8 digitu eta hizkia),
- eta jaioteguna (ee/hh/uuuu).

Bozketa-lekua :

Bozketa-prozesu hori Okendo Kultur Etxearen erakusketa-aretoan burutuko da, Nafarroa Hiribidearen 7. zenbakian, eta bertan aurkeztuko dira hiru ekipo finalistaren proposamenak.

Prozesuaren iraupena:

Botoa emateko egunak 2006ko abenduaren 13, 14, 15, 16 eta 17a izango dira.

Botoa emateko ordutegia:

- Asteleazkenetik (hilak 13) ostiralera (hilak 15): 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

- Larunbata (hilak 16): 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

- Igandea (hilak 17): 10:00etatik 14:00etara

BOZKETA-PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Bozketa-sistema

Bozketa-sistema boto elektronikoko presentziala izango da, identifikazio pertsonalaren bidez.

Botoa bakarra, sekretua eta izengabea izango da.

Herritarrarentzako 2 ekipo erabiliko dira ukipen bidezko pantailak izango dituztenak, eta horrela, herritarrak nahi duen aukera pantaila gainean zapaldu besterik ez du egin beharrik izango. Ordenagailu bakoitzaren aldamenean pertsona bat izango da laguntzen.

Galdera:

Udal Gobernuak honako galdera egingo die herritarrei: ***hiru proposamen hauetatik zein iruditzen zaizu Katalunia plaza berritzeko egokiena?***

Bozketa-erregistro baliodunak:

Hiru aurreproiektu edo proposamen finalista horietako baten alde eman ahal izango da botoa. Horrela, hiru erantzun-aukera baliodunak honako hauek izango dira:

1. Lore berri bat. ISUURU arquitectos (Carlos Abadías-Aitzpea Lazkao).
2. SAMAZUZU arquitectos (Samaniego-Zuzunaga)
3. Plaza berde eta bigun bat: LUR PAIAJISTAK

Behin betiko proiektua idazteko esleipenaren inguruko erabakia hartzeko lehiaketa publikoan aurrera egitearren, sistemak ez du boto zuria emateko aukerarik eskainiko, eta ez da boto baliogaberik ere onartuko.

BOZKETA-PROZESUAN EGIN BEHARREKO URRATSAK

Botoa emateko guneko kudeatzaileak, edo hala egokituz gero, arreta-guneko kudeatzaileak honako urrats hauek egin beharko ditu (ikus 1. eranskina: prozesuaren fluxu-diagrama):

1. Urratsa:

Pertsonaren nortasuna egiaztatzea, herritar bakoitzak bere identifikaziorako balio duen agiri bat aurrez aurkeztuta, eta horretarako, banan-banan hurbilduko dira botoa emateko tokira.

Jarraian adierazten direnak bakarrik hartuko dira **agiri balioduntzat**: NAN, pasaporte, egoiliar-txartela eta gida-baimena, horietako bakoitzaren iraungipen-data kontuan izan gabe. Ez dira baliodunak izango jatorrizkoak ez diren agiriak, egoera txarrean dauden agiriak edo argazkirik ez dutenak.

2. Urratsa:

Identifikatutako pertsona baliozkotzea, aurkeztutako nortasun-agiriaren identifikazio-zenbakiko digitu guztiak idatziz, eta sistema honen bidez honakoa egiaztatuz:

- Pertsona hori Udalak mugatutako lurralde-eremuan bizi dela eta 16 urte beteak dituela 2006/12/17ko eguna baino lehen.
- - Pertsona horrek ez duela oraindik botorik eman.

Bi egoera topa daitezke:

*Sistema horrek sartutako zenbakia onartzen badu, hirugarren puntura igaro.

*Sistema horrek sartutako zenbakia onartzen ez badu, 6. puntura igaro.

3. Urratsa:

Datuak bat datozela egiaztatzea, aplikazioak emandako erregistroa botoa ematera joan den pertsonaren izen-abizenekin bat datorrela ziurtatuz.

4. Urratsa:

Botoa emateko pantailara hurbil dadila baimentzea, botoaren konfidentzialtasuna bermatuz.

5. Urratsa:

Sistemak hiru proiektu finalisten argazkiak erakutsiko ditu pantailan, argi eta garbi identifikatuak eta bereziak. Ukipen bidezko pantailan horietako baten gainean sakatuz, herritar bakoitzak berak nahi duena aukeratuko du.

Kudeatzaileak ezingo du botoa emateko prestatutako pantailaren gainean inola ere zapaldu, ezta botoa emango duen pertsonak eskatuta ere. Pertsona batek botoa emateko tokiko kudeatzaileari horrela eskatzen badio, hirugarren pertsona batek, fede onez, egin ahal izango du haren ordeiz.

Botoa emango duen pertsonak proposatutako hiru aukeretatik bakar bat ere aukeratu nahi ez badu, botoa emateko ekintza hori baliogabe utzi ahal izango du.

6. Urratsa:

Sistema informatikoak ez badu onartzen sartutako zenbakia, arreta-guneko edo botoa emateko tokian erroldarako sarbidea duen kudeatzailearengana joan beharko du herritarrak. Ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da:

-Ez baditu baldintzak betetzen, adieraziko zaio ezin duela botorik eman.

-Baldintzak betetzen baditu: erroldan ageri den NANaren zenbakia ikusiko da, eta horren bidez, sisteman sartu ahal izango da. Erroldan NANaren zenbakirik agertzen ez baldin bada (adin txikikoak, atzerritarrak, ...), erroldan izendatu zaion pertsona-zenbakia idatziko da.

Jarraian, eta aurkitzen den toki horretan bertan, bozketa-prozesu honetarako prestatutako programan sartu ahal izango da, eta arestian adierazitako urrats bereberei jarraiki, hiru proposamenen artetik bat aukeratu ahal izango du. Kasu honetan, saguaren bitartez aukeratuko da, ekipo horrek ez duelako ukipen bidezko pantailarik izango.

Une horretan bere botoaren emaitza erregistratuta geratuko da eta ezin izango da ez aldatu eta ez ezabatu ere. Sistema honek bermatu egingo du ezingo dela inor emaitzen datu-basean sartu kontsultaren epealdi guztian.

ERABILITAKO BALIABIDEAK

Bozketa-prozesu elektronikoa Udalaren Informatika Zentroan garatutako sistema informatikoaren bidez gauzatuko da.

Jarraian, kontsulta-prozesua egoki garatzeko erabilitako giza baliabideak eta bitarteko materialak aurkeztuko dira.

Bitarteko materialak:

- Bozketa-prozesua kudeatzeko sistema informatikoa.
- Udaleko datu-sarearen zerbitzaria.

- Irudi-zerbitzaria (Cluster)
- Lotus Notes datu-basea.
- Ukipen bidezko pantailak dituzten ekipoak.
- Altzariak.
- Botoa emateko aretoa (Okendo Kultur Etxea)

Giza baliabideak:

- Botoa emateko tokiko kudeatzaileak (bozketa-gune bakoitzeko bat).
- Arreta- edo bozketa-guneko kudeatzailea.
- Informatika Zentroko aplikazio informatikoa garatzeko eta arreta eta euskarria emateko taldea.

2.- BOTOEN ZENBAKETA-PROZESUA

Erabilitako aplikazio informatikoari esker, botoak automatikoki zenbatu daitezke. Botoak ez dira inoiz eskuz manipulatu, eta zenbaketa fisikorik ere ez da egingo.

Idazkariak (edo honek eskuordetzen duen pertsonak) bakarrik izango du baimena, botoa emateko prozesua amaitu ondoren, emaitzen datu-basean sartu ahal izateko.

Idazkariari izendatutako pasahitz pertsonal bakar baten bidez sartu beharko du.

Botoen zenbaketa ekitaldi publiko batean egingo da bozketa-prozesua itxi ondoren, eta Udal Batzarrak erabili ohi dituen bideetatik ezagutaraziko da publikoki.

Botoen zenbaketarako ekitaldi publiko hori egingo den tokia, eguna eta ordua adieraziko dira.

3.- BERME ETA SEGURTASUNERAKO JARRAIBIDEAK

Bozketa-prozesuan segurtasun, zuzentasun eta baliotasun bermerik handienak erdiesteko helburuz, ondorengo elementuak izango dira:

BOZKETA-PROZESUA KUDEATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOA

Sistema informatikoa Lotus Notes datu-base batetik mantenduko da, udalaren datu-sarearen Zerbitzari batean ostaturatua eta segurtasun-neurri handiak dituena. Instalazioaren segurtasun-kopia estandarrak izango dira.

Udal saretik (Intranet) bozketa-sistemarekin konexioa egiterakoan, bertara sartzeko baimenik ez duten kanpo-sarrerak egin ahal izateko aukera gutxitu egiten da.

Botoa emateko ordutegia ohiko lanaldia baino luzeagoa izan daitekeenez gero (baita jai-egunetan ere), eta hori egiten den bitartean funtsezkoa denez etenaldirik ez gertatzea, irudi-zerbitzari bat (cluster) erabiltzea ere aurreikusiko da, eta horrela, sistema eroriz gero, nahiz ez den oso litekeena, datu-base erreplikatuaren funtzionamendua automatikoki abiaraziko da.

Laguntza teknikoa

Udalaren Informatika Zentroak sistemaren funtzionamenduan gertatzen diren akatsei aurre egiteko ohiko euskarria izango du. Bulegoko orduetan aplikazioaren programatzaile-taldea edo ordutegi horretatik kanpora, 7x24 telefono bidezko larrialdi-euskarria.

Ekipo Informatikoak eta Erabilgarritasuna

Bi ekipo informatiko prestatuko dira, ukipen bidezko beren pantailekin, bozketa-prozesu honetarako. Botoa emateko puntuetan instalatzen diren ekipo guztiek aldi berean eta sinkronizaturik lan egingo dute.

Ekipo horiek Lokalean instalatutako Lotus Notes bezeroarekin funtzionatuko dute, sarearen erorketa gertagaitzen eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

Arestian aipatu den moduan, ekipoek "Ukipen bidezko" pantaila bat izango dute, eta beraz, herritarrak ez du teklaturik edo sagurik erabili beharrik izango, eta pantailan berak nahi duen aukera sakatu edo ukitu besterik ez du egin behariko, sistema horrek N.A.N. onartzen ez duenean salbu, eta halako kasuan erroldako sarrera duen arduradunaren postura joan behariko du, hark ez baitu ukipen bidezko pantailarik.

**APLIKAZIOAN ETA SISTEMA INFORMATIKOAN SARTZEKO
SEGURTASUNA**

Aplikazioan sartzeko ezaugarriak definituko dira, eta horrela, bozketa-puntuetan arreta egiten ari diren pertsonak bakarrik izango dute botoa kudeatzeko baimena. Eta hori, bozketa-prozesua zabalik dagoen bitartean bakarrik egin ahal izango da.

Sistema automatikoki ireki eta itxiko da, eta horri esker, sistemaren zuzentasuna ziurtatuko da botoa emateko ezarritako ordutegitik kanpora, eta ezinezkoa egingo du bertan sartu ahal izatea.

Botoa emateko eguna eta orduak programatuta egongo dira, eta beraz, boto elektronikoa kudeatzeko aplikazioa goizeko 10:00etan zabalduko da eta 14:10ean itxiko da; arratsaldeko ordutegian, berriz, 16:00etan zabalduko da eta 20:40ean itxiko da, larunbatean izan ezik, orduan 16:30ean zabaldu eta 20:10ean itxiko baita. Ordutegi horretatik kanpo inork ezingo du inolako erregistrorik gehitu, aldatu, edo trukatu.

Udalaren Informatika Zentroko aplikazioaren arduradun teknikoak sinatutako txosten baten bidez ziurtatu egingo da aplikazioaren funtzionamendua zehaztutako bozketa-sistemari dagokiona dela. Idazkariak egiaztatu egin beharko du txosten hori. Era berean, bozketa-prozesua egin aurretik eta egin ondoren egiaztatu ahal izango du programa osatzen duten jarraibideak (inprimatu egingo dira eta bere zaintzapean jarriko dira) ez direla aldatuak izan. Premia berriren bat sortu izanagatik edo aplikazioari ukituren bat egin zaiolako aldaketaren bat egin nahi izanez gero, Idazkariari jakinarazi beharko zaio, eta hark, delako gertaera horren inguruko akta egingo du.

Udaleko Idazkariak bakarrik izango du emaitzen datu-basean sartzeko aukera. Eta botoen zenbaketa-prozesuan bakarrik sartu ahal izango da, botoa emateko epea amaitu ondoren.

DATUEN ETA BOZKETEN KONFIDENTZIALTASUNA

Elkarrekin harremanik ez duten bi fitxategi bereizietan datuak banatuz ziurtatu egingo da inoiz ezingo dela ez NAN eta ez beste edozein nortasun pertsonaleko datu ere hautatutako aukerarekin erlazionatu.

Botoa emateko unean jasotzen diren datuak, hau da, NAN eta herritarrak hautatutako aukera, bi datu-baseetara igaroko dira, eta bereizirik gordeko dira bi fitxategi desberdinetan, eta horrela, ziurtatu egingo da inoiz ezingo dela NAN bat hautatutako aukerarekin erlazionatu. Datuak fitxategi horien barruan sartu ahal izateko, ez da beharrezkoa izango parte hartzen duen herritarraren baimena, DBLOaren 6.2. artikulua ezarritakoan oinarrituz. Nolanahi ere, parte hartzeko eremuan kokatuko diren kartelen bidez jakinaraziko da datuak fitxategi horien barruan sartuko direla.

Sailkapen soziodemografikoko datuak erregistratzearen xedea, hain zuzen ere, parte hartzen duen kolektiboaren ordezkagarritasuna eta bere

homogeneotasun maila aztertzea da sailkapen soziodemografikorako irizpide desberdinen arabera.

Horren helburua herritarren kontsultarako mekanismoaren emaitzak aztertzea da, prozesu hori lehendabiziko aldiz egiten baita hirian.

BIGAREN ATALA: IRADOKIZUNAK

Okendo Kultur Etxeko erakusketa-gelan partaidetzarako eremu bat prestatu da, eta bertan, ordenagailu bat, mahaiak eta aulkiak jarri dira, iradokizunen orria paperean edo Internet bidez bete nahi dutenentzat. Erakusketa-gela horretan aurkitzen den iradokizunen postontzia eta Udalaren web orrian dagoen postontzi birtuala, hala nahi duen edozein herritarrek aztergai diren hiru proiektuen inguruan bere iritzia eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko prestatuak daude. Erakusketaren barruti horretan eta udalaren web orriaren partaidetza-atalean fitxa bat aurki daiteke (ikus 3. eranskina), hala nahi duen edozein herritarrek bete ahal izango duena. Fitxa horren formatuari esker, adierazitako item horietan oinarrituz jasotako ekarpenen inguruko azterketa sistematizatu bat egin ahal izango da. Herritarrari hainbat datu eskatzen zaizkio bide hori erabiliz beren iritzia eman duten pertsonen ezaugarriak osatzeko:

- Adina
- Sexua
- Donostian bizi zara?
- Gros-Ulia inguruan bizi zara?
- Elkarte baten barruan zaude? Zeinetan?

Erakusketa-gelako postontzian nola udalaren web orrian jasotako iradokizunei emango zaien tratamenduari dagokionez, honakoa ezarri da:

1. IRADOKIZUNAK IREKITZEA

Bozketaren azken egunean, abenduak 17, 14etan iradokizunen postontzia irekitzeari ekingo zaio. Era berean, udalaren web orriaren bidez jaso diren guztiak inprimatuko dira. Horiei guztiei zenbaki bat jarriko zaie hurrenkeraren arabera, eta udal sarreraren zigilua ezarriko zaie.

2. SISTEMATIZATZEA

Gero, jasotako iritzi, proposamen eta ohar guztiak sistematizatzeari ekingo zaio, plazak etorkizunean izango duen egituraren inguruko iritzia, iradokizunak eta abar modu antolatua eta sistematikoa batean jasotzeko.

3. ARGITARA EMATEA

Sistematizazio-prozesu hori egin ondoren, lortutako emaitzak udalak erabili ohi dituen bideetatik ezagutaraziko dira. 2007ko urtarrilaren 16ko aste horretan emango dira argitara emaitzak.

4. IRADOKIZUNAK PROIEKTU IRABAZLEAN BARNERATZEA

Donostiako Gobernuak, bozketa-prozesuan izandako partaidetzaren ehunekoia eta hiru proposamen horietako bakoitzari azken kontsultan eman zaion babesari balioetsi ondoren, azken bozketan gehiengoak lortu duen iritzia errespetatuko du. Horrela, gehiengo zabal batek onartu dituen eta kontsultan irabazle izan den plaza-diseinuaren irizpideekin kontraesanek ez dauden iradokizunak behin betiko proiektuaren barruan sartzen ahaleginduko da.

3.– BOZKETA-PROZESUAREN JARRAI PENERAKO MAHAIA:

Bozketa-prozesuaren jarraipena egiteko, gainbegiratzeko eta egoki funtzionatzen duela zaintzeko, "jarraipenerako mahai" bat eratuko da, eta gehienez ere 8 lagunek osatuko dute:

- Auzoko 4 bizilagun: 2 "Hondarpe" Groseko auzo-elkartearen ordezkari gisa, eta beste bi lagun, elkarte baten barruan ez daudenak, udalak mugatutako inguru horretan erroldatuta dauden bizilagunen artean ausazko sistema bat erabiliz izendatuak.
- Udaletxeko 4 kide, honako hauen ordezkari izango direnak: Gobernuarena (1), oposizioarena (1), proiektu eta obretako departamentuko teknikariena (1) eta idazkaritza orokorrarena (1).

Jarraipenerako mahai hori abenduaren 13an osatuko da.

Bere eginkizunak, arestian adierazi den moduan, ezarritako sistemaren funtzionamendu egokia zaintzea eta ezarritako prozedura hori adierazitako gardentasunarekin betetzen dela bermatzea izango dira.

4.- ERANTZUKIZUNAK

Jarraian, bozketa-prozesu honen diseinuan eta kudeaketan parte hartu duten eragile desberdinen erantzukizunak zehaztuko dira.

Parte hartu duten eragileak hauek izan dira:

- Herritarren partaidetzarako Departamentua.

- Udaleko Idazkaria.
- Aplikazioaren arduradun teknikoak.
- Jarraipenerako Mahaia.
- Bozketa Guneko Kudeatzaileak.
- Erroldarako Sarbidea duen Arreta Guneko Kudeatzailea.

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO DEPARTAMENTUA

- Bozketa-prozesuaren azken erantzulea den aldetik, parte hartzeko prozesuaren azken fase hau behar bezala gauzatu dadila bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea.
- Agiria hau prestatu eta eguneratzea, bozketa-prozesuaren zuzentasuna, fidagarritasuna eta baliotasuna ziurtatzeko helburuarekin.
- Izandako gorabeheren inguruko erabakiak hartzea, bozketa-prozesuaren jarraipenerako mahaian hartutako erabakiekin bat etorriz.
- Bozketa-prozesuan gerta litezkeen gorabeheren berri ematea Jarraipenerako Mahaiari.

UDAL IDAZKARIA

- Botoa emateko hasierako ekitaldian eta amaierako ekitaldian bertan egotea (bera edo bere ordezkari bat).
- Aplikazioaren baliotasun teknikoari buruzko txosten bat badagoela egiaztatzea, aplikazioaren arduradun teknikoak sinatua.
- Programa informatikoa osatzen duten jarraibideak eta herritarren kontsultaren emaitzetan sartzeko pasahitza bere zaintzapean edukitzea eta inprimatzea.
- Egiaztatzea, botoa emateko prozesua baino lehen eta gero, programa osatzen duten jarraibideak ez direla aldatuak izan.
- Egiaztatzea, botoa emateko prozesua baino lehen eta gero, herritarren kontsultaren emaitzen datu-basean ez dela inor sartu horretarako baimenik gabe.
- Botoa emateko epe horretan aplikazioaren aldaketaren bat egin nahi izanez gero akta bat idaztea eta Herritarren Partaidetzarako Departamentuko zuzendaritzari horren berri ematea.

- Datuetan sartzea, horiek zenbatzearen, botoa emateko prozesua amaitu ondoren.
- Boto-zenbaketa-aren emaitzak eta jasotako iradokizunak jakinaraztea.

APLIKAZIOAREN ARDURADUN TEKNIKOA

- Bozketa-prozesua kudeatuko duen aplikazio informatikoa diseinatzea.
- Txosten sinatu baten bitartez bermatzea Udalaren Informatika Zentroan instalatuta dagoen aplikazioaren funtzionamendua hemen zehazten ari garen bozketa-sistemari dagokiona dela.
- Aplikazioaren funtzionamenduan irregulartasunak gertatuz gero laguntza tekniko eskainiko dela bermatzea, horretarako beharrezkoak diren baliabideak eskainiz.
- Behar izanez gero, botazio elektronikoa kudeatzeko sistema informatikoa aldatu behar diren berri edo beste edozein gorabeheraren berri ematea Udaleko Idazkariari.

JARRAI PENERAKO MAHAIA

- Botoa emateko hasierako ekitaldian eta amaierako ekitaldian egotea.
- Bozketa-prozesuan agiri honen edukia egoki aplikatzen dela zaintzea.
- Bozketa-prozesuaren eta sor daitezkeen gorabeheren gainbegiratzaile gisa jardutea.
- Iradokizunen postontzia irekitzeko ekitaldian gainbegiratzaile gisa jardutea.

BOZKETA GUNeko KUDEATZAILEA

- Bilkura bakoitzaren hasieran bere erabiltzaile-izenarekin eta sistemako pasahitzarekin nor den egiaztatzea.
- Herritarrari nor den egiaztatzen duen identifikazio-agiri baliagarria eskatzea.
- Agiri honen 5. kapituluari deskribatutako bozketa-prozesua betetzea, egin behar diren urrats bakoitza errespetatuz.
- Botoa eman aurreko unean herritarrari laguntza eskaintzea, botoaren konfidentzialtasuna zainduz.

- Gorabeheraren bat gertatuz gero, herritarra erroldarako sarbidea duen arreta-guneko kudeatzailearengana bideratzea, parte hartzeko baldintzei buruz informazioa aurrez emanez.
- Aplikazioa ixtea, bozketa-gune horretatik une batez irten behar izanez gero.
- Agiri honetan zehaztutakoak ez diren beste helburu batzuetarako ez erabiltzea ekipoa.

ERROLDARAKO SARBIDEA DUEN ARRETA- EDO BOZKETA-GUNEKO KUDEATZAILEA.


- Botoa eman aurretik herritarrak identifikatzeko orduan erroldan egon litezkeen akats materialen inguruko gorabeherak ebaztea.
- Herritarren aldeko ebazpen positiboa izanez gero, bozketa-guneko kudeatzailearen erantzukizunak bere gain hartuko ditu.
- Paperean inprimatutako errolda-alea zaintzea.
- Gorabeheren orriak eskaintzea eta herritarrek betetakoak jaso eta artxibatzea.
- Udalaren Informatika Zentroari laguntza teknikoa eskatzea bozketaren kudeaketarako sistema informatikoan funtzionamendu-akatsak atzemanaz gero.

1. ERANSKINA. Bozketa-prozesuaren

Fluxuen diagrama

**BOZKETA-GUNEKO
KUDEATZAILEA**

**ERROLDARAKO
SARBIDEA
DUEN BOZKETA-GUNEKO
KUDEATZAILEA**



2. ERANSKINA: KALEEN ZERRENDA

AGIRRE MIRAMON

1, 4, 5, 6, 7, 8, 9

AITA LARROKA

1, 3, 5, 6, 7, 8, 12, 14

ARBOLA PASEALEKUA

7, 9, 47, 49

ARTETXE JENERALA

1, 2, 6, 8

ATARIZAR

2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 12, 14, 15, 16, 20, 22, 24, 25, 26, 27

ATEGORRIETA GALTZADA ZAHARRA

11, 12, 14, 15, 17, 18, 19, 21, 23, 25, 26, 27, 31, 33, 34, 35, 37, 43, 53, 55, 57, , 59, 67, 69, 71, 79, 81, 83, 91, 95, 103

ATEGORRIETA HIRIBIDEA

3, 4, 5, 6, 7, 9, 11, 12, 17, 22, 23, 25, 26, 28, 29, 31, 35, 37, 39, 41, 43, 45, 47, 49, 53, 55, 57, 63, 59.A, 59.B, 59.C, 59.E, 59.G, 65

ATEGORRIETAKO PARTIKULAR KALEA

1, 2, 3, 4

BADERAS

1

BARATZE

4

BERMINGHAM

1, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 15, 17, 21, 23, 24, 25, 28, 31, 33, 35, 37

BERRIA

2, 5, 8, 10, 12, 15, 16, 17, 18, 20, 22

BITERI PLAZA

1, 2

DUNAS

1, 3

ERRETERIA

1, 2, 3, 5, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 17

EUSKADI PLAZA

1

EUSKAL HERRIA PLAZA

3

GALTZADA NAGUSIA

3, 4, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 26, 28, 30, 33, 35

GLORIA

1, 2, 3, 5, 7

KARKIZANO

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12

KLAUDIO A. LUZURIAGA

1, 2

K. DELGADO DOKTOREA

1, 2, 3, 4, 5, 6, 8

LABURRA

2, 3, 4, 6

INDIANOENE

6, 9, 10, 14, 15, 17, 19, 20, 22

IÑAKI ALDABALDE PLAZA

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7

IPARRAGIRRE

2, 2D, 3, 4, 5, 6, 8, 11, 13, 15, 16, 18

IZTUETA

1, 3, 5, 7, 9, 11

J. MIG..BARANDIARAN PASEALEKUA

6, 8, 10, 14, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30

JOSE ARANA

2, 3, 4, 7, 8, 11, 13, 14, 15, 16, 17

JOSE MARIA SOROA

1, 3, 5, 6, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 15, 17, 19, 21, 22, 23, 25, 28

KOLON PASEALEKUA

2, 3, 3, 3Y, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 13, 14, 15, 17, 19, 21, 23, 24, 27, 29, 31, 33, 35, 37, 39

LAPURDI PLAZA

1

LUISTAR LANGILEEN PLAZA

1, 2

MANTEO

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 29, 31, 33, 34, 35, 37, 39, 41

MARINO TABUYO

4, 6, 8, 10, 11, 12, 14, 16

MIGUEL IMAZ

1, 3, 4, 5, 6, 8, 10

MIRAKRUZ

1, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 10A, 10B, 10C, 14, 16, 17A, 17B, 17C, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 25, 26, 27, 28A, 28B, 30, 32, 34, 36

MISERIKORDIA

3, 4, 5, 6

NAFARROA HIRIBIDEA

1, 2, 8, 16, 18, 19, 20, 24, 25, 27, 30, 32, 33, 34, 36, 37, 38, 40, 44, 46, 48, 50

OIARTZUN

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7

PASAIA

1, 3, 4, 6, 9

PEÑA Y GOÑI

1, 2, 3, 4, 5, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16

PINUDI PLAZA

2

NAFARROA BEHEREA PLAZA

1, 3, 4, 5, 6, 7

RAMON Y CAJAL

1, 3, 4, 5, 6

RAMON MARIA LILI PASEALEKUA

1, 2, 3, 4, 7, 8, 9

RODIL

2, 4, 4A, 6, 17, 19, 21, 23, 25, 26, 27, 28, 30, 32, 33, 36, 37, 38, 39, 41, 43, 45, 46, 48, 50, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 59, 61, 63, 64, 67, 69, 71, 73, 77, 81, 83, 87, 91, 95, 97, 99, 101, 103

RONDA

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7

SAN BLAS

1, 4, 8, 10, 12, 14, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 28

SAN FRANTZISKO

1, 2, 5, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 23, 24, 25, 26, 28, 31, 32, 33, 34, 35, 37, 38, 40, 42, 44, 45, 46, 47, 49, 51, 52, 53, 54, 56

SEGUNDO IZPIZUA

2, 5, 7, 10, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 26, 27, 28, 29, 30, 32, 33, 34, 35

SEKUNDINO ESNAOLA

1, 3, 5, 7, 8, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 27, 29, 33, 36, 39, 40, 41, 43, 44, 46, 48, 53, 55

TOMAS GROS

3, 5

TRUEBA

1, 2, 4, 6, 7, 8, 11, 12, 15

TXOFRE KALEA

1, 2, 3, 4, 5, 7, 9, 11

TXOFRE PLAZA

1, 3, 6, 11, 12, 17, 22

USANDIZAGA

2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 23, 25, 27, 29

ZABALETA

1, 2, 4, 6, 8, 9, 10, 12, 17, 18, 26, 28, 30, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38, 40, 42, 43, 44, 45, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 54, 55, 59

ZEMORIYA

3, 5, 11, 13, 23, 25, 27, 27A, 29, 47, 53, 69, 71, 73

ZURRIOLA HIRIBIDEA

4, 6, 12, 14, 16, 16Y, 18, 20, 22, 22Y, 24, 26, 28, 30, 32, 34, 44, 46

3-ERANSKINA: IRADOKIZUNEN FITXA

CATALUÑA

Parte hartzeko, iritzia
azaltzeko, ...
oportunitate bat

Una oportunidad para
participar, para opinar...



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Erakusketan ikusi ahal izan duzun bezela, hiru aurre-proiektuak oso desberdinak dira beren artean. Udaleko teknikariek egindako erreflexioek, plaza nolakoa izango den definitzeko zein baldintza kontutan hartu behar diren azaltzen digute. Zure ekarpena behar dugu, horrela plaza berria hobeto diseinatuko dugu.

Como has visto los tres anteproyectos plantean propuestas de ordenación muy diferentes entre sí. Los técnicos municipales nos ha ayudado con sus reflexiones a pensar qué aspectos tenemos que tener en cuenta para definir cómo tiene que ser la plaza que queremos. Necesitamos tus aportaciones, con ellas diseñaremos mejor la nueva plaza.



ZERTARAKO BEHAR DUZU PLAZA? ¿Para qué necesitas la plaza?

.....

.....

.....

.....

.....



NOLA NAHI DUZU IZATEA? ¿Cómo quieres que sea?

.....

.....

.....

.....

.....



ZEIN ERABILPEN IZAN BEHARKO LUKE KONTUTAN? ¿Qué usos crees que tiene que contemplar?

.....

.....

.....

.....

.....



- 4** APARKALEKUAREN IRTEERA ETA SARRERA NOLAKOA IZAN BEHARKO LUKE? ¿Cómo crees que debería de ser la salida y entrada del parking?

- 5** HIRU PROIEKTUEK AZALTZEN DITUZTEN IDEIETATIK, ZEIN DA GUSTOKOE-NA ETA IRUDITZEN ZAIZUNA EZINBESTEKOA PLAZA BERRIAREN ERAKUN-TZARAKO? De las ideas que plantean los tres proyectos, ¿qué es lo que más te ha gustado y consideras imprescindible en la nueva ordenación de la plaza?

- 6** ZERBAIT GEHIAGO AZALDU NAHI EZKERO... Si quieres añadir algo más...

Iradokizunen postontziaren bidez iritzia eman duzuenon profila hobeto zehazteko, ondoren eskatzen ditugun datuak betetzea eskertuko genizueke:

Te agradeceríamos que nos facilitarás los siguientes datos, ya que nos permitirán conocer mejor el perfil de las personas que habéis opinado a través de este buzón:

ADINA Edad urte años

SEXUA Sexo Emakumezkoa Mujer Gizonezkoa Hombre

Donostian bizi al zara? ¿Vives en Donostia? Bai Sí Ez No

Gros-Ulian bizi al zara? ¿Vives en la zona de Gros-Ulia? Bai Sí Ez No

Ekarte bateko partaide al zara? Zein da elkarte? ¿Perteneces a alguna asociación? ¿A cuál? Bai Sí Ez No